

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2011ko lehen hiruhilekoan hildakoak izan dituzten trafiko istripuak % 45 murriztu dira

Martxoaren amaierako datuen arabera, % 14 jaitsi da errepideko ezbeharren kopuru osoa

Lunes, 04 de abril de 2011

2011ko lehen hiruhilekoan % 45 egin du behera Nafarroako hiri barruko bideetan eta hiriartekoetan hildakoak izan dituzten istripuen kopuruak, Foru Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak egin duen behin-behineko balantzearen arabera. Guztira, urteko lehen hiru hilabeteetan bost hildako izan dira; pasa den urtean, garai berdinean, aldiz, bederatzi izan ziren hildakoak.



Martxoan Saratsaten izan zen istripua, hildako eta guzti (Itza ibarra)

2011ean izan diren ezbeharretan hildakoetatik hiru Gobernuko errepide sarean jazo ziren istripuetan hil ziren eta bi hiri barruetan edo bestelako bideetan. Pasa den urtean, garai berdinean, istripuetan hil ziren bederatzietatik zazpi Gobernuak kudeatzen dituen errepideetan izandako istripuetan hil ziren eta bi bestelako bideetan.

Martxoan bi heriotza zenbatu dira errepideko ezbeharretan; aldiz, 2010ean hiru izan ziren istripuetan hildakoak. Joan den martxoaren 4an Uharteko lagun bat hil zen gidatzen ari zen motorraren kontrola galdu eta, Tuteran, A-68 errepideko erdibiltzailearen aurka talka egin ondoren. Bigarren istripua N-240-A errepidean gertatu zen, Saratsaten (Itza ibarra). Martxoaren 27ko istripu hartan bi turismok aurrez aurre egin zuten talka eta lagun bat hil zen.

Joan den martxoaren 3an ere lagun bat hil zen otsailaren 25ean Iruñeko bizikleten bidean istripua izan ondoren. Hildako hori urteko bigarren hilabeteko balantzean jaso da.

Nafarroan erregistratu diren trafiko istripuen kopuruak beherako joera izan du bai ezbeharren kopuruari (martxoan % 14 egin du behera) bai ondorioei dagokienez ere, izan ere, azken hilabeteetan hiru zauritu larri gutxiago (% 37 gutxiago) eta bederatzi zauritu arin gutxiago izan dira (% 27 gutxiago) 2010eko hile berdinarekin alderatuta.